

Albisteak

Hizkera juridikoa eta Itzulpengintzari buruzko Sinposioa

Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak, sortu zenetik hogeita bost urte bete berri direnean, euskal legelari zein hizkuntzalariak gertu-gertutik ukitzen dituen gai bati buruzko jardunaldiak antolatu ditu, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin batera. Hizkera Juridikoa eta Itzulpengintza: Euskararen norabideak izeneko sinposioaren baitan, 2004ko azaroaren 17 eta 18an, euskara juridikoaren bilakaera, itzulpengintza eta Zuzenbidearen euskarazko irakaskuntza bezalako alderdiak jorratu dira.

Bertako zein kanpoko adituak bildu ziren bertara, hitzaldiak ematera. Zehazki, Enrique Alcaraz, Alacanteko Unibertsitateko Filologia Ingeleseko katedraduna; José Palacio, Europako Erkidegoetako Lehen Auzialdiaren Auzitegiko Itzulpengintza Zuzendaritzan Espainiako Saileko legelari-hizkuntzalari; Cesar Gallastegi, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea; Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailean euskara sustatzeko zuzendari nagusia; Adolfo Arejita, Labayru Institutuko Euskara Saileko arduraduna; Andres Urrutia Euskara Juridikoaren Mintegiaren koordinatzailea; Eneko Oregi, HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofizialeko burua; Esther Urrutia, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea; eta Itziar Alkorta, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea.



2004ko azaroaren 17a. Deustuko Unibertsitatea. "Hizkera juridikoa eta Itzulpengintza" Sinposioa.

Jardunaldi hauetan, bestetik, Kode Zibila eta lege testu elebidunen aurkezpen ofiziala egin zen. Izan ere, Deustuko Unibertsitateak Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin sinatu zuen hitzarmenaren harian, erakunde biok elkarlanean dihardute Zuzenbide esparruko arau esanguratsu eta erabilgarrienak euskal erkidego osoari euskaraz eskaintzearen.

Santiago Larrazabal Basañez eta Eneko Oregi Goñi jaunak izan ditugu sinposio honen koordinatzaileak.



Hizkuntza eskubideak hezkuntzan aztertzeke Sinposioa

Hizkuntz Eskubideen Behatokiak, Euskal Herriko herritarren hizkuntza eskubideez arduratzen den fundazioak, Hizkuntza eskubideek hezkuntzan izeneko sinposio bat antolatu zuen 2004ko azaroaren 3 eta 4an Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Bertako zein kanpoko profesional zein teknikariak bildu zituen bilgune honetan, Euskal Herrian dauden hezkuntza sistemez hausnartzeko parada izan zen, eta, halaber, sistema horietan hizkuntza eskubideak bermatzen ote diren eta etorkinak integratzeko ekimenak ere aztertu ziren.

Kataluniako erregistro zibiletan katalanez egin ahal izango dira idazpenak

Espainiar Gobernuako Justizia ministroak, Juan Fernando López Aguilarrek, eta Generalitateko Justizia sailburuak, Josep Maria Vallès, Protokolo bat sinatu zuten Bartzelonan 2004ko urriaren 22an, Kataluniako erregistro zibiletan katalan hizkuntzaren erabilera bultzatzeko. Orain arte, ofizialki aintzatetsitako izenak baizik ezin ziren katalanez inskribatu; gainerako guztiak gaztelaniaz egin behar ziren. Sinatu berri den Protokoloak, Estatuan den eleaniztasuna aitortzarekin batera, Kataluniako erregistro zibiletako liburueta idazpenak bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egiteko aukera ematen du. Halaber, hiritarrek katalanez zein gaztelaniaz jaso ahal izango dituzte ziurtagiriak.

Epailleek autonomia erkidegoko hizkuntza jakiteko beharraren inguruko zalantzak

Kataluniako Parlamentuan gehiengoz onaturiko lege organiko proposamenak Botere Judizialaren Lege Organikoko hainbat aurreikuspen aldatzeko asmoa du; besteak beste, Administrazio judizialeko maila guztietan (magistratuak, fiskalak, idazkariak eta gainerako funtzionarioak) nahitaezkoa izan dadin autonomia erkidego bakoitzeko hizkuntza ofiziala jakitea, eta ez merezimendu, orain gertatzen den legez. Nolanahi ere, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko Azterketa Batzordeak prestaturiko txostenean esaten denez, litekeena da asmo hauek ez etortzea bat Espainiar Konstituzioko 117.3 eta 24.1 artikuluekin. Txosten hau Osoko Bilkuran aztertuko da epe laburrean.

Euskaraz defendatu da doktore tesi bat

Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean euskaraz aurkeztu eta defendatu da doktore tesi bat. Eunate Prieto Etxanok Musika-irakaskuntzen erregimen juridikoa izenburuko tesia prestatu du Iñaki Agirreazkuenagaren zuzendaritzapean, eta 2004ko abenduaren 20an aurkeztu, Donostian. Iñaki Lasagabasterrek, Josu Erkorekak, Edorta Crobrosok, Juan José Álvarez Rubiok eta Martín Razkinek osatu zuten epaimahaia.

Justizia Saitetik zer berri?

Manuel de Irujo saria, Juan María Vidarte abokatuarentzat

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak banatu ohi duen Manuel de Irujo saria Juan María Vidarte abokatuak jaso du aurtengoan. Besteak beste, Justiziaren alde urtetan egindako lanak, bere ibilbide profesionalak gizartearen izan duen oihartzuna eta Justiziarekin izan duen konpromisoa azpimarratu ditu Epaimahaiak, Errepublikara garaian Justizia ministro izandakoaren izena daraman saria jardunean mende erdia baino gehiago daraman abokatu bizkaitarrari emateko.

Eusko Ikaskuntzako azken berriak

Jean Haritschelharrek jasoko du aurtengo Manuel Lekuona saria

Jean Haritschelhar idazle, hizkuntzalari eta euskaltzain osoak jasoko du Manuel Lekuona saria, bere hogeita bigarren edizioan. Baigorriin 1923an jaioa, Tolosa eta Sorbona Unibertsitateetan egin zituen bere ikasketak, eta Bordeleko Unibertsitatean eskolak ematen aritu da. Halaber, Baigorriko alkatea eta Baionako Euskal Museoko zuzendaria izan da, eta Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeko kide. Sari honen bitartez, Haritschelharrek urte hauetan guztietan zehar euskararen alde egindako lana eskertu eta goratu nahi du Eusko Ikaskuntzak.

Giza Eskubideei buruzko ikastaroaren aurkezpena


Eusko Ikaskuntzaren baitako Asmoz Fundazioak, Euskal Herriko Unibertsitateko Konstituzio, Administrazio eta Filosofia Zuzenbide Sailarekin batera, Giza Eskubideei buruzko ikastaroa antolatu du. Honen berezitasun nagusia da Internet bidez emanen dela bere osotasunean. Francisco Javier Caballero, Zuzenbidearen Filosofian katedraduna EHUn, eta Andres Krakenberger, Amnesty International erakundearen espainiar saileko presidentea, ditugu ikastaro honen zuzendariak. Ikastaroa gaztelaniaz emango da, eta bukaeran Giza Eskubideetan adituaren diploma luzatuko diete ikasleei.

www.asmoz.org weborrian aurkituko duzue argibide gehiago.

Bibliografia

Artikuluak

CELAYA ULLIBARRI, Adrián; ARREGI ELKOROBARRUTIA, Zorione. "Kooperatiben Zuzenbidearen erronka berriak", In: Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria, 1. zkia., 2003ko azaroa; 54-70 orr. Kooperatiben Zuzenbidea asko aldatu da 1993ko Legea onartu zenez geroztik, baina hutsune historikoak oraindik ere konpondu gabe daudela erakusten digu artikulu honek. Bestetik, Zuzenbide konparatuari gehiago begiratu beharra, eta soziologia zein ekonomia arloetan egindako azterketak kontuan hartzea aldarrikatzen da.



GOENAGA, Patxi. "Hizkuntza erronkak Euskal Autonomia Erkidegoan", In: Revista Vasca de Administración Pública, 69 (II). zkia., 2004; 1-3 orr. Liburu honek Euskal Herriko Unibertsitatearen 2003ko Udako Ikastaroan "Hizkuntzen bizikidetasuna aniztasunean" gaiaren inguruan emandako hitzaldiak biltzen ditu, besteak beste Nafarroako, Kataluniako, Europar Batasuneko zein Kanadako egoeren inguruan. Argitalpen honek errealitatea hobeto ezagutzeko hausnartzen laguntzea du xede.




GARCÍA DELGADO, Sonia M.; IPIÑAZAR PETRALANDA, Izaskun. "Ikuskaritza-araategian aldaketak: bide onetik gabilta?", In: Uztaro, 49. zkia., 2004; 7-20 orr. 1988ko Kontuak Ikuskatzeko Legea berritzeko eta ikuskaritza-araategiaren lanbideak galdutako konfiantza berreskuratzeko, Sistema Finantzarioa Berritzeko Neurrien 44/2004 Legea igorri zen, besteak beste. Lan honetan, Lege berrituak dakartzan aldaketak aztertzen dira, batez ere independentzia, bateraezintasunak eta kalitatearen kontrola.




Itzulpenak


Deustuko Unibertsitatea. Erregistro Zibilaren Legea eta Erregelamendua. Ley y Reglamento del Registro Civil, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004; 491 or. Itzultzaileak: Aiora Aristondo, Anjel Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia. Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuarekin sinaturiko hitzarmenaren harian, Erregistro Zibilaren 1957ko ekainaren 8ko Legea eta 1958ko azaroaren 14ko Dekretua ele bietan biltzen ditu argitalpen honek.




Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua. Lege zibilak: ondasun higiezinak, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004; 370 or. Itzultzaileak: Aiora Aristondo, Arantza Etxebarria, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia, HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala. Ondasunen higiezinaren arloan funtsezkoak diren lau lege testu biltzen ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, liburu honek: Jabetza Horizontalaren Legea, Hiri Errentamenduen Legea, Txandakako Aprobetxamendu Eskubideen Legea eta Landa Errentamenduen Legea.



Euskaltzaindia, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua. Espainiako Konstituzioa. Constitución Española, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004; 126 or. Deustuko Unibertsitateak lege testu esanguratsuak eskura izateko sortu duen Minor Bilduma-ko lehen alea dugu hau, 25 urte bete berri dituen Espainiako Konstituzioari eskainia. Ele bietan jasotzen da bere edukia, eta euskarazko itzulpena atontzeko lanetan parte hartu dute Euskaltzaindiako Lege Batzordeak, hainbat euskaltzainkidek eta Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasle batzuek.




Herri Arduralaritzaren Erakundeko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala, Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutua. Kode Zibila. Código Civil, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004; 1255 or. Itzultzaileak: Eba Gaminde, Begoña Landa, Gotzon Lobera, Andres Urrutia, Esther Urrutia, HAEEko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala.



Kode Zibila euskaraz eta gaztelaniaz jasotzen da liburu honetan, ele bietako artikulua elkarren aldamenean dituela. Gainera, Kodeak izan dituen legegintzako aurrekariak eta Kodea aldarazi zuten legeen zerrenda ere biltzen ditu. Euskaltzaindiaren hizkuntza arau eta gomendioei jarraitu zaie Kode Zibilaren euskaratze lanak egitean.

RAMÍREZ MARTÍNEZ, Juan M. Lan Zuzenbidearen ikasgaiak. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004, 12. argitaraldia; 748 or. Itzultzailea: F. Javier Arrieta Idiakez.



Lan Zuzenbidea aztergai duen eskuliburu honetan Lan Zuzenbidearen alderdi nagusiak jorratzen dira, hogeit hamar ikasgaitan banatuta; besteak beste, Lan Zuzenbidearen iturriak, sindikatu askatasuna, negoziazio kolektiboa, greba eskubidea, lan kontratua eta gizarte segurantzia.

Monografiak

KASARES, Paula. "Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian. Zer eskubidez ari garen eta zertan diren", In: Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak, 31. zkia., Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2004; 119 or.

Hizkuntza eskubideek ipar zein hego Euskal Herrian egun bizi duten egoera eta hauen garapena azaltzen ditu Paula Kasaresek liburuxka honetan, besteak beste Erregioetako eta Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Itunak zein Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak xedatzen dutenari begira. Halaber, Euskal Herrian hizkuntza eskubideen aldeko herri ekimena ere aztertu du.



LASAGABASTER HERRARTE, Iñaki; GARCÍA URETA, Agustín; LAZCANO BROTÓNS, Iñigo.

Ingurumen Zuzenbidea. Zati Orokorra, Donostia: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 2004; 397 or. Zortzi ataletan barna, Ingurumenaren kontzeptua, Estatuak eta autonomia erkidetako Ingurumenaren gainean dauzkaten eskuduntzen banaketa, Zuzenbide administratiboa, Jarduera sailkatuen lizentzia, Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa, Poluzioaren kontrol integratua, Ekoikuskaritza eta ekotxartela, eta Herritarren eskubideak lantzen dira liburu honetan.



Bidean dauden Legeak*

1. Eusko Legebiltzarra

1.1. Lege proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena
Euskadin giza eskubideen eta askatasunen defentsa zainduko duen behatoki bat eratzeko	2003.01.22	2003.01.31
Lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta hura zuzentzeko	2004.03.23	2004.03.26
Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzko Legea berritzeko	2004.07.06	2004.07.09
Haur eta gaztetxoak zaintzeko eta babesteko	2004.09.14	2004.09.17
Emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako	2004.10.19	2004.10.21
Lurzoruari eta hirigintzari buruz	2004.10.19	2004.10.21
Urarena	2004.10.19	2004.10.21
2005-2008 urtealdirako Euskal Estatistika Planarena	2004.12.02	2004.12.03

1.2. Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legea aldatzeko	2003.02.04	EAJ eta EA	2003.02.07
Boluntarioei buruzko Legea aldatzeko	2003.10.16	Euskal Talde Popularra	2003.10.17

1.3. Herritarrek aurkeztutako lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Herialde pobretuekiko justizia eta elkartasun gutunerako	2004.03.23	Riviere Aranda, José Benito eta beste batzuk	2004.03.26

* OHARRA: Irakurle, ekimen hauek 2004ko abenduaren 3an zeuden egoeran agertzen dira tauletan. Litekeena da aldizkariaren argitalpena bitarteko denboran horietakoren bat lege bihurtu izana.
ITURRIA: Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko mahaiaik.

2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Foru Lege proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena
Ogasun Lokalek Parte Hartzeko Fondoak Nafarroako Tributueta 2005etik 2008ra bitarteko aurrekontuetan izango dituen zenbatekoa eta formulak ezartzeari buruzkoa	2004.06.23	2004.07.19
Nafarroako Gobernuari eta bertako presidenteari buruzkoa	2004.06.24	2004.07.05
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzkoa	2004.06.24	2004.07.05
Nafarroako 2003ko Kontu Orokorrei buruzkoa	2004.09.17	—
Ingurumena babesteko interbentzioari buruzkoa	2004.09.22	2004.10.04
Nafarroako Administrazio Publikoetan diharduten langileen neurriei buruzkoa	2004.09.30	2004.10.08
Nafarroako Terapeuta Okupazionalen Elkargo Ofiziala sortzeari buruzkoa	2004.10.22	2004.11.08
Nafarroako 2005eko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa	2004.11.03	2004.11.04
Hainbat zerga eta tributu aldatzeari buruzkoa	2004.11.03	2004.11.05
Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuaren aurrekontuko beharrak finantzatzeko, 195.000 euroko ezohiko kreditu bat emateari buruzkoa	2004.11.10	2004.11.22

2.2. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Espedientea
Hauteskundearen Erregimen Orokorren 5/1985 Lege Organikoko 50. artikulua aldatzeari buruzkoa	2004.06.03	Nafarroako Ezker Batua	2004.06.15
2/1985 Foru Legea, martxoaren 4koa, Nafarroan Radiotelevisión Españolako Aholku Batzordea sortu eta arautzen duena, aldatzeari buruzkoa; 4/2000 Foru Legea, uztailaren 3koa, Nafarroako Erkidegoko Herriaren Defendatzailea arautzen duena, aldatzeari buruzkoa; eta 18/2001 Foru Legea, uztailaren 5koa, Nafarroako ikus-entzunezko jarduerara arautzen duena eta Nafarroako Ikus-Entzunezkoen Kontseilua sortzen duena, aldatzeari buruzkoa	2004.09.02	Convergencia de Demócratas de Navarra eta Unión del Pueblo Navarro	2004.09.13
Autonomoen eta nekazaritza zein abelazkuntzako autonomoen erregimen berezietako pentsioak jasotzen dituztenei, hauek lanbide arteko gutxieneko soldata baino baxuagoak direnean, laguntza osagarriak emateari buruzkoa	2004.10.08	Aralar	2004.10.25
Gaixoak bere biziaz xedatzeko daukan autonomia arautzeari buruzkoa	2004.11.22	Nafarroako Ezker Batua	—
Ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 8. artikulua aldatzeari buruzkoa, zeinak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta bere organismo autonomoek emandako, kudeatutako eta kontrolatutako diru-laguntzen erregimen orokorra arautzen baituen	2004.11.25	Nafarroako Ezker Batua	—